

MAULEKO ESKUALDUN BESTAK



Aitzineko astean ziren Eskualdun bestak *Mauleko* irian. Urte oroz an edo emen, Espainiako edo Frantziako eskualdun erri batean aldizka eman-arazten ditu besta eder oik *Antonio d'Abbadie*, jaun jakintsun, Eskual-erriaren ongi-egile andiak.

Beinere baino ederrago izan dire aurtan beraz besta oik *Maulen*. Bazen an pilota partida ikus-garririk; ba eta koplari ernerik; asko eta asko jostagailu zaar, Eskual-errian baizik ezagutuak ez direnik.

Orotako oroitzapenik ooragarriena eta iraunkorrena besta oitan izaten da Eskualdun koplarien *prima*. Badire, an berean edo zoin solas-gei artu eta mintza direnak; zoin obeki. Badire aitzinetik artarekin egin koplak batzu igortzen dituztenak. Aurtengo koplak geia zen, *d'Abbadie* jaunak berak autaturik emana.

Irugarren aldia zuen Eskualdun besta oitakotzat *Madalen Larralde* Saratar neskatcha gazte zenaren laudoriak bear zituztela koplari egin. Leen bi aldietan agertu koplak jaun jujeek ez aski eder atzemanik, berriz emana zen solas-gei bera, prima irabazi uste zuketenen eskuetara.

Oraikoan iru irabazle agertu dire: frantses bat eta bi español; frantsesak ukan du leen prima, *larogei ta lau libera* eta eskualdun *makila* eder bat. Bi españoletarik batek bigarren prima: *eun libera*; irugarrenarentzat, berrogei libera.

Leen prima irabazi duen frantses eskualduna da Orzaizeko jaun erretora, *Diarassarry*, Sarako semea.

Ainitz atsegin dugu zeren frantses eskualdun batek dituen obekien eman bersutan eskualdun frantses neskatcha garbi kartsuaren laudorioak. Sarako erriarentzat ere zer oorea ez da Sarako seme batek eman izatea bertsu eder ukigarritan!

Zuzen zen ori orrela gerta zadin. Ezen alde batetik Sarako erriak

aspaldi-danik badaduka erlisioneari atchikimendu; bai eta Eskualdun mintzaia zaarrari bertze asko erritan ez bezalako gozo bat, aotik bearrira doana.

Bertzalde neon ez dute *Madalen Larralde* aur gaicho zenarentzat eginak diren kopla oiek biotz geiago ukituko Saran berean baino; zeren den oraino an ageri, eta chutik azkar egoki neskatcha kartsuaren sor etchea. Are geiago atseginekin irakurturen dituzte beraz, erritar baten oroitzapenetan eginak direlaketz.

Beinik being uk emen *Eskualdunean* gogotik emaiten ditugu iragan direlako bestetan leen prima eraman duten bersuak:

MADALEN LARRALDE SARATARRA AMABOBTZ URTETAN ILA, 1794AN



Elizak utsak ziren apezak iesi,
Debruaren mutilak Frantzian nagusi!
Gure Eskual errian, orotaz gainetik,
Giristino jendentzan etzen bizitzerik.

Primadera goiz batez, argi urratzean,
Saratar bat eldu zen Berako bidean:
Neska gazte guria, *Madalen Larralde*:
Bakarrik, otoitzean, zoan etche alde.

Betbetan sasipetik, otsoen pareko,
Soldadu batzu oiuz ateratzen zaizko,
«Non abila, neskatcha? Zertan intzen Beran?
Ots, egia dena den, guri laster erran.»

Badaki Madaienek, egia erranik
Ez dela arendako luzaz bizitzerik.
Ala ere nai da egiaz mintzatu?
«Kofesatzeko, dio, naiz Beran izatu.»